



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko urriaren 13a

98. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Kontseilariaren aburuz, Iruñeko hautagaitzak 2016an Europako kultur hiriburu izateko hautaketa gainditu ez izanaren arrazoei buruzkoa. Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (2.or.).
- Galdera, jakiteko zer arrazoi dauden gobernuak Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua ez betetzeko, ez baitie erantzun aldi baterako gastu-erreserbak 2010eko aurrekontuetako zer kontusail ukituko zituen jakiteko eginiko eskari eta errekerimenduei. José Andrés Burguete Torres jaunak egina (2.or.).
- Galdera, ezagutzeko zer arrazoi izan dituen Nafarroako Gobernuak Nafarroan ETBren emisioak TDT bidez hartzeari buruz parlamentu honek hartutako erabakiak orain arte ez betetzeko. Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina (3.or.).
- Galdera, jakiteko ea Nafarroan kasuren bat baden non menpekotasuna baloratu eta aitortu ondoren onetsitako laguntza gerarazita geratu den aurrekontuan diru nahikorik ez izateagatik. Ana Figueras Castellano andreak egina (4.or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakia, 2010eko irailaren 27koa, deialdiak eta ofizioak posta elektroniko bidez bidaltzeari buruzkoa (5.or.).

I SAILA:

Planak, komunikazioak eta programak:

- Moderna Plana. Nafarroaren garapen ekonomikorako eredu berria 2030era begira. Osoko Bilkurak onetsia (7.or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilariaren aburuz, Iruñeko hautagaitzak 2016an Europako kultur hiriburu izateko hautaketa gainditu ez izanaren arrazoei buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urriaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilariaren aburuz, Iruñeko hautagaitzak 2016an Europako kultur hiriburu izateko hautaketa gainditu ez izanaren arrazoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko urriaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Patxi Telletxea Ezkurak, Nafarroa Bai parlamento-taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko araudian xedatutakoaren arabera, ondo ko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilariak ahoz erantzun diezaion, urriko 14an izanen den Legebiltzarreko Osoko Bilkuran, gaurkotasan handiko galdera gisa.

2016an Europako kultur hiriburu izateko lehian aurrera jarraituko dute Donostiak, Las Palmasek, Segoviak, Zaragozak, Cordobak eta Burgosek; kanpoan geratu da, aldiz, Iruñea.

Zergatik uste du Kultura kontseilari jaunak ez duela Iruñeko hautagaitzak hautaketa gainditu?

Iruñean, 2010eko urriaren 7a

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, jakiteko zer arrazoi dauden gobernuak Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua ez betetzeko, ez baitie erantzun aldi baterako gastu-erreserbak 2010eko aurrekontuetako zer kontusail ukituko zituen jakiteko eginiko eskari eta errekerimenduei.

JOSÉ ANDRÉS BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urriaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Andrés Burguete Torres jaunak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera; horren bidez, jakin nahi du zer arrazoi

dauden gobernuak Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua ez betetzeko, ez baitie erantzun aldi baterako gastu-erreserbak 2010eko aurrekontuetako zer kontusail ukituko zituen jakiteko eginiko eskari eta errekerimenduei.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko urriaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak erantzun dezan:

2010eko apirilaren 28an, Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkar-teak Nafarroako Gobernuari informazioa eskatu zion, jakiteko ea aldi baterako gastu-erreserbak

2010eko aurrekontuetako zer kontusail ukituko zituen. 2010eko ekainaren 28an, Legebiltzarreko Eledunen Batzarraren erabaki baten bidez Nafarroako Gobernuari eskatu zitzaion informazio hori berehala igor zezan, eta 2010eko irailaren 17an Parlamentuko lehendakariak berriz ere eskatu zuen informazioa.

Horrenbestez, hauxe jakin nahi dugu:

Gobernuak zergatik ez du bete Legebiltzarreko Erregelamendua? Izan ere, behin eta berriz utzi ditu bete gabe Nafarroako Parlamentuak eginiko eskariak eta errekerimenduak, aldi baterako gastu-erreserbak 2010eko aurrekontuetako zer kontusail ukituko zituen jakiteko informazioari buruzkoak.

Iruñean, 2010eko urriaren 8an

Foru parlamentaria: Jose Andrés Burguete Torres

Galdera, ezagutzeko zer arrazoi izan dituen Nafarroako Gobernuak Nafarroan ETBren emisioak TDT bidez hartzeari buruz parlamentu honek hartutako erabakiak orain arte ez betetzeko.

JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urriaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan José Lizarbe Baztán jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera; horren bidez, ezagutu nahi du ezagutzeko zer arrazoi izan dituen Nafarroako Gobernuak Nafarroan ETBren emisioak TDT bidez hartzeari buruz parlamentu honek hartutako erabakiak orain arte ez betetzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko urriaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako eledun eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak urriaren 14ko Osoko Bilkuran erantzun dezan:

- Zer arrazoi izan ditu Nafarroako Gobernuak gaur arte ez betetzeko Nafarroan ETBren emisioak TDT bidez hartzeari buruz parlamentu honek hartutako erabakiak?

Iruñean, 2010eko urriaren 8an

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

Galdera, jakiteko ea Nafarroan kasuren bat baden non menpekotasuna baloratu eta aitortu ondoren onetsitako laguntza gerarazita geratu den aurrekontuan diru nahikorik ez izateagatik.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urriaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera; horren bidez, jakin nahi du ea Nafarroan kasuren bat baden non menpekotasuna baloratu eta aitortu ondoren onetsitako laguntza gerarazita geratu den aurrekontuan diru nahikorik ez izateagatik buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko urriaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko Ana Figueras Castellano, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gaurkotasuneko ondoko galdera aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Zioen azalpena:

Nafarroako Parlamentuak Mendekotasunari buruzko Legea onestearen ondorioz, nafar guztiei eskubide subjektibo bat aitortu zitzaion, zeinaren bitartez Foru Komunitatea behartzen baita eskubide hori ziurtatzera.

Legeak berak menpekotasuna duten pertsonak sailkatzeko graduak zehazten ditu, bai eta menpekotasuna duten pertsonak baloratzeko beharra ere, hain zuzen ere gradu desberdin horien arabera sailkatzeko.

Horrenbestez, behin Nafarroako Gobernuak zerbitzuek ziurtatutako prestaziorako eskubidea dakarren menpekotasuna aitortu ondoren eta kasuko maila baloratu ondoren, Foru Administrazioak laguntza ematea besterik ez da falta.

Galdera

Ba al dago Nafarroan kasuren bat non menpekotasuna baloratu eta aitortu ondoren onetsitako laguntza gerarazita geratu den aurrekontuan diru nahikorik ez izateagatik?

Iruñean, 2010eko urriaren 11n

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakia, 2010eko irailaren 27koa, deialdiak eta ofizioak posta elektronikoko bidez bidaltzeari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 27an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita 2010eko irailaren 22ko txostena, deialdiak eta ofizioak posta elektronikoko bidez bidaltzeko AGORA Millennium sistemaren inplementazio berriari buruzkoa.

Kontuan hartuta eskueran dauden baliabide tekniko berriak behar bezala kudeatze aldera beharrezkoa dela zenbait inplementazio-jarraitze ematea, Erregelamenduko 37.1.1 artikulua erekin bat, ondokoa ERABAKI DA:

1. Ezartzea bilkuren deialdiak eta ofizioak posta elektronikoko bidez bidaliko direla 2010eko urriaren 18tik aurrera –astelehena–. Halatan, Parlamentuak parlamentari bakoitzari bere garaian jarri zion posta elektronikoko kontura iritsiko dira. Salbuespen bakarra izanen da Mahaiaren eta Eledunen Batzarraren deialdia, zeina paper-formatuan ere jasoko baitute Mahaiko eta Eledunen Batzarreko kideek eta legelari nagusiak.

2. Ezartzea lan bileren deialdiak posta elektronikoko bidez bidaliko zaizkiela 2010eko urriaren 18tik aurrera –astelehena– lan bileretan agerraldia egiten dutenei. Halatan, hurrengo atalean ezartzen diren jarraibideekin bat ematen zaizkigun posta elektronikoko kontuetara iritsiko dira.

3. Ondoko jarraibideak onestea, erabiltzaileen eskura jarritako baliabide tekniko berrien erabilera egokia ziurtatze aldera:

Posta elektronikoko bidezko deialdien egokitzapenak: Agorako tresna berriak abian jartzen direnetik aurrera, bilkuren deialdiak posta elektronikoko bidez bidaliko dira. Halatan, Parlamentuak parlamentari bakoitzari bere garaian jarri zion posta elektronikoko kontura iritsiko dira. Salbuespen bakarra izanen da Mahaiaren eta Eledunen Batzarraren deialdia, zeina paper-formatuan ere jasoko baitute Mahaiko eta Eledunen Batzarreko kideek eta legelari nagusiak.

– Eledunen Batzarraren deialdiak: abian jartzen direnetik aurrera, Nafarroako Gobernari posta elektronikoko bidez bidaltzen zaizkion deialdi-etan ez da “Agurra” ageriko.

– Mahaiaren deialdiak: Mahaiaren eta Eledunen Batzarraren Idazkaritzak deialdiari erantsita joan beharreko dokumentazioa emanen die zerbitzu orokorrei, gelazainek eskaneatu dezaten. Mahaiaren eta Eledunen Batzarraren Idazkaritzak izanen du soilik dokumentazio horretarako sarbidea, horretarako sortutako baliabidearen bitartez.

Mahaiko eta Eledunen Batzarreko kideentzako eta legelari nagusiarentzako paper-formatuko deialdiei dagokienez, espedientean gorde beharreko deialditik egindako kopia aterako du deialdia Mahaiaren eta Eledunen Batzarraren Idazkaritzak.

Mahaiaren gai zerrenda orain arte bezala, posta elektronikoko bidez, jakinaraziko zaie zerbitzuei, Prentsa eta Protokolo Zerbitzuari, legeriei eta Mahaiko kideen idazkariari.

– Batzordeetako deialdiak: abian jartzen direnetik aurrera, posta elektronikoko bidez egiten dira, zenbait berezitasunekin. Hona:

Lan bileren kasuan, deialdi bera bidaliko zaie agerraldia egiten duten guztiei, eta deialdiari erantsiko zaizkio Mahaiak bilkura horiek direla-eta onetsitako jarraibideak.

– Batzordeetako eta Osoko Bilkuretako deialdiak: legelari eta parte-hartzaile guztiek jasoko dituzte deialdiak. Hartara, jasotzaile gisa azalduko dira erabili beharreko baliabidean, eta deialdiak intranetetik desagertuko dira.

Posta elektronikoko bidezko ofizioen egokitzapenak: Ondoko jarraibideak bete beharko dira Agorako ofizioak posta elektronikoko bidez bidali ahal izateko:

– Ofizioen eredu guztiek izan beharko dute, aldeztu aurretik eskaneatuta, Legebiltzarreko lehen-dakariaren sinadura.

– Ez da ofiziorik posta elektronikoki bidez bidaliko, baldin eta lehendakariak ez badu eskuz eta aldez aurretik sinatu.

– Hona jarraitu beharreko prozedura:

– Agoratik lortuko da espedientera joan beharreko ofizioa, lehendakariak eskuz sina dezan. Ondoren, espedientean artxibatuko da.

– Behin ofizioa sinatuta, aldez aurretik ezarritako jasotzaileei bidaliko zaizkie gainontzeko ofizioak, eta posta elektronikoki bidez bidaliko dira Agoratik. Ofizioetan lehendakariaren sinadura eskaneatua eta Nafarroako Parlamentuaren sina-

dura digitala ageriko dira. Ofizioen eranskinak PDF formatuan eginen dira, manipulazioak ekiditeko.

4. Legebiltzarreko zerbitzuei agintzea hartu beharreko erabakiak har ditzaten, aurreko ataletan xedatutakoa bete dadin.

5. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

6. Erabaki honen berri ematea zerbitzuburuari, legelariari, Mahaiko eta Eledunen Batzarreko Idazkaritzari eta Mahaiko kideen idazkariari.

Iruñean, 2010eko irailaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

I saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

Moderna Plana. Nafarroaren garapen ekonomikorako eredu berria 2030era begira.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2010eko urriaren 1ean egindako bilkuran, "Moderna Plana. Nafarroaren garapen ekonomikorako eredu berria 2030era begira" izenekoa onetsi zuen –2010eko irailaren 22ko 82. NPAOn argitaratua–, ondoko proposamenak gehituta:

1. Autogobernua da erakundeen oinarritzko euskarria. Hartan oinarritzen dira haiek gizarte osoari zuzendutako ekintzak, eta haien nortasuna indartzen du. Hortaz, lehenetasuna eman behar zaio Foru Hobetzean espresuki jasotzen diren aurreikuspenak betetzean nahiz Foru Komunitatearen eskumenak areagotzean.

2. Nafarroako Parlamentuak Moderna Fundazioan eta planaren batzorde iraunkorrean parte hartuko du, hartara planaren garapena ezagutu, baloratu eta haren jarraipen egokia egin ahalko baitu.

3. Lehenetasunezko ekintzat hartzea erkidego honetako administrazio publikoaren erreforma, beharrezkoa dena, zerbitzuaren kalitatean eta gastuan eraginkortasuna eta efizientzia irizpideak balliatuta, bai eta toki-mapa ahal den adostasun eta parte-hartze handienarekin erreformatzea ere.

4. Apustu estrategikoen artean jasotzea nekazaritzako eta abeltzaintzako landa-jarduerari buruzko atal berezi bat, nabarmenduz funtsezko zeregina duela baliabideen aprobetxamendu iraungarrian, enpleguaren sorreran, elikagai-erronkari aurre egitean, ingurumena zaintzean eta habitatak, bioaniztasuna eta landa-inguru bizi eta erakargarri bat iraunaraztean.

5. Ezinbestekoa da atzerriko hizkuntzetan hizkuntza-gaitasuna izatea; hortaz, hezkuntza formaren bidez gaitasun hori lortuko dela ziurtatu behar da, hizkuntzan murgiltzeko jardueren bitartez indartu eta lanbide heziketako zikloetan eta unibertsitatean sartu behar da, atzerriko hizkun-

tzan lan egin ahal izate aldera ezagutza zientifikoa gailentzen den lanbideetan.

Ingelesean izan beharreko gaitasuna lortzen laguntzea langabezia dauden pertsonen, eta ingelesa sartzeko langileen prestakuntzan, bereziki enpresa nahiz merkataritza sektore jakin batzuetako enpresa txiki eta ertainen kasuan.

6. Nafarroako Gobernuak, lau hilabeteko epean, Moderna Plana abian jartzeko aurrekontu-plan bat igorriko du Nafarroako Parlamentura, urtez urte eta finantza-iturrien arabera zehaztuta, legebiltzarrean eztabaidatu eta onesteko.

7. Moderna Planak Garapen Integraleko Nafar Estrategiaren aldeko apustua egiten du. Estrategiari behar adina tresna esleituko zaizkio, Iruñerriaren hazkunde neurrigabea moteltzeko, garapen ekonomikoa berronertzeko eta Foru Komunitateko beste eskualde batzuetan enplegua sortzeko.

Lurralde-orekaren helburu desiragarria lotua dago lurraldearen antolamenduaren eta planifikazioaren arloko politikari, bai eta lurraldearen askotariko erabilerei ere, gaur egun zenbait xedetarako dauden erabilgarritasun arazoak zuzendu eta prezioen erabilera espekulatiboa ekiditen dutenak.

Ikuspuntu deszentralizatu berri bat behar da, eskualdeen lurralde-eremua tamaina kritikoko gune gisa bultzatzen duena, tokiko garapen iraungarria planifikatzeko orduan eta antolamendueskemak –lurralde-antolamendukoak, azpiegiturak eta toki garapeneko programekin bat datozen zerbitzuetakoak– ezartzeko orduan.

8. Nafarroako garapen ekonomikoaren eredu berria Europa 2020 Estrategiarekin koordinatuta eta bategina egonen dela aipatzea. Hortaz, Moderna Plana berraztertu beharko da, Europa 2020 Estrategian inskribatzeko.

9. Jarduketa-ardatz gisa sartzeko laguntza soziosanitarioari eta teknologiaren eta industriaren

garapenari bultzada bat ematea, mendekotasunari aplikatzeko, sektore hori, batetik, sektore estrategiko nazional bihurtuta lege bat etorkizunean garatzeko, "Autonomia pertsonala sustatzeko eta mendekotasun egoeran dauden pertsonen eta familien kasu egiteko Legea," eta, bestetik, nazioarteko sektore estrategiko ere bihurtzeko, giza beharrian hori asetzeko aplikazio soziosanitario, teknologiko eta industrialetan.

10. Generoen arteko parekotasuna sartzea, Moderna Planeko zuzendaritza, koordinazio, kudeaketa eta aholku emateko organoko kideei dagokienez.

Biltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2010eko urriaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda